OEEk 30 urte bete ditu!!!!

Zorionak denoi!!

Bazkideei, proiektu honetan sinisten dutelako.

Joan direnei, haien gogoak gurekin jarraitzen duelako: Agote, Aizpuru…

Euskaltzaleei, beste arlotan ere gogor ekiten dutelako.

Gizarteari, denon artean orain dela milaka urtetik hona euskararen garrari eutsi diolako.

Sorrera akta

1990ko martxoak 17

Xabier Agirre
Jose Artetxe,
Iñigo Jaka
Angel Bidaurrazaga
Mikel Etxenike



SORTARAZTE - AGIRIA

Bilbon, mila bederatzirehun ta larogeitamarreko martxoaren hamazaz piko hamabietan.

B I L D U R I K:

Jose Ramon LASARTE IRADI jauna
Ricardo ARRUE IMAZ jauna
Alejandro MITXELENA IMAZ jauna
Amaya ABAUNZA BADAIA anderea
Mikel ETXENIKE ELIZONDO jauna
Javier ORBEGOZO ALBERDI jauna
Fermín ARRUE IMAZ jauna
Jose FURUNDARENA SALSAMENDI jauna
Jose ARTETXE OCASAR jauna
Xabier AGIRRE LASARTE jauna
Xanti RABANAL RETOLAZA jauna
Agustín BILDOSOLA AGIRRE jauna
Iñigo JACA ARRIZABALAGA jauna
Javier ARIZABALETA SAN MIGEL jauna
Itziar IZAGIRRE URKIOLA anderea
Jose Ramon ARRIANDIAGA BILBAO jauna
Iñaki BROUARD URKIAGA jauna
Angel BIDAURRAZAGA VAN-DIERDONCK
Carlos ALBERICH HERRERA jauna
Jose Maria URIBARRI ATUTXA jauna

Denak adin nagusikoak, legezko eta iharduteko gaitasuna dutela rik.

Bertan bildutako guztiek, elkarrekin eta batera lan egiteko nahia azaltzen dute, araututako elkarte baten bidez, Euskal Herriko Osasun sailetik gizartearen euskalduntzea bultzatzeko.

Ondorioz, aho batez, ERABAKITZEN DUTE:

1º.- Batzarre honetan Elkartea sortzea, otsailaren 12ko, 3/1.988 Legean jasotako xedapenen arabera, "OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEA" izenarekin.

2º.- Elkartea arautuko duten Estatutuak onartzea.

3º.- Zuzendaritza batzordea osatuko duten Lehendakaria eta lau batzordekideak hautatzea. Hautatuak hauek dira:

Lehendakari: Xabier AGIRRE LASARTE.
Batzordekideak: Jose ARTETXE OCASAR
Angel BIDAURRAZAGA VAN-DIERDONCK
Iñigo JACA ARRIZABALAGA
Mikel ETXENIKE ELIZONDO

Zuzendaritza batzordeko kideen artean:
Lehendakariorde: Mikel Etxenike Elizondo
Idazkari: Angel Bidaurrazaga Van-Dierdonck
Diruzain: Joxe Artetxe Ocasar.

4º.- Elkarteen Erregistroan Elkartearen inskribatzea formalizatzea

Batzarrea amaitutzat ematen da, goian aipatutako leku eta egunean, honoko Akta hau jasotzen delarik. Eta hartutako erabakien froga libre eta borondatezkoaren seinale gisa bazkide guztiek sinatzen dute.

D.N.I. 15.154.973
IÑIGO JACA ARRIZABALAGA

Osasun Biltzarrak. Lehenengoa 1990ean eta urtero bat egin da



1. Minbizia. Donostia, 1991.
2. Gaixotasun infekziosoak. Bilbo, 1992.
3. Osasun-arazoak zahartzaroan. Gasteiz, 1993.
4. Aurrerapen terapeutikoak. Donostia, 1994.
5. Lehen mailako asistentzia. Gernika, 1995.

1995ekoa GERNIKA-LUMON

1995ekoa GERNIKA-LUMON

1996tik 2000era

6. Eritasun kronikoak eta bizi-kalitatea. Iruñea, 1996.
7. Larrialdiak. Gasteiz, 1997.
8. Neurozientziak. Bilbo, 1998.
9. Genetika eta osasuna. Donostia, 1999.
10. Osasuna eta teknologiak. Donostia, 2000.

2009koa ALTSASUN

2009koa ALTSASUN

2009koa ALTSASUN

2010eko GOGOETA ESTRATEGIKOA USURBILEN

ELHUYAR aholkularitza

OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEA

OEE
Gogoeta estrategikoa
1. saioaren akta

2010eko GOGOETA ESTRATEGIKOA USURBILEN

2001etik 2005era



11. Osasuna denontzat. Iruñea, 2001.
12. Gaixo terminala. Gasteiz, 2002.
13. Prebentzioa. Getxo, 2003.
14. Alergiak. Lekeitio, 2004.
15. Adimen osasuna: Oztopoak gainditzen. Iruñea, 2005.

2006tik 2010era



16. Gaixotasun kardiobaskularrak. Gasteiz, 2006.
17. Mugimenduaren osasuna. Donostia, 2007.
18. Infekzioak. Bilbo, 2008.
19. Osasun Berrikuntzak. Altsasu, 2009.
20. Emakumeak eta Osasuna. Arantzazu (Oñati), 2010.

2011tik 2015era

21. Ikerkuntza: ezagutzatik ekintzara. Gasteiz, 2011
22. Osasun-langileon erronka berriak . Bilbo, 2012
23. Haurtzarotik Gaztarora... Iruñea, 2013
24. Osasun Hezkuntza. Donostia, 2014
25. Osasuna Kirola. Gasteiz, 2015

2011koa GASTEIZEN

2011koa GASTEIZEN

2012ko BERTSO SAIO KLINIKOA - BILBO

3. Izena emateko azken eguna 2012ko AZAROAREN 15a izango da.
   • Izena beti Banaka emango da. Izen-abizenak, espezialitatea eta lantokia behar dira. Kontakturako helbide elektroniko bat eta telefono bat beharrezkoak dira.
   • Taldeak zozketa bidez osatuko dira.
   • Ikusle bezala bertaratzeko aukera ere badago. Hala nahi izanez gero, izena ematerakoan jakinarazi beharko da.

4. Saioa hasi aurretik afariaren balioa, 30 €, emango du pertsona bakoitzak.

5. Taldeek IZEN BANA izango dute, hots, 1.
bakiz gero, izena ere jar dakioke.

6. Txapelketa kanporaketa sistema bidez jok
bakoitzean bertso-kopuru jakin bat kantatuko
zak aipatzen duen diagnostikoa edo hitza asm
taldea kaleratua izango da. Bertsoak ez dira in

7. Kanporaketen bidez bi talde pasako dira fina

8. Sailkatutako bi taldeek finala jokatuko dute.
sori dagokien diagnostikoa edo hitza asmatu beh
zeko nahiko datu egongo delarik. Asmat
ezean beste talde

2012ko BERTSO SAIO KLINIKOA - HERNANI

EHUko kreditu 1 ikasleentzat

BERTSO SAIO KLINIKOA

Non:	Goiko Lastola Sagardotegia Ereñozu auzoa 89, Hernani
Noiz:	martxoaren 9an, ostirala, 18:30ean
Norentzat:	osasun arloko langile eta ikasleentzat
Oinarriak:	ikus atzeko aldea
Izen-ematea:	otsailaren 29a baino lehen e-posta: HDO.ABIAN@osakidetza.net irene.gil@osakidetza.net

2013ko BERTSO SAIO KLINIKOA - BILBO

Oinarriak

1. Txapelketa taldeka egingo da. Talde bakoitzak bi edo hiru pertsona izango ditu.

2. Parte hartzaile osasun arloarekin erlazioa duen edonor izan daiteke.

3. Izena emateko azken eguna 2013ko AZAROAREN 19A izango da.
   - Izena beti Banaka emango da. Izen-abizenak, espezialitatea eta lantokia behar dira. Kontakturako helbide elektroniko bat eta telefono bat beharrezkoak dira.
   - Taldeak zozketa bidez osatuko dira.
   - Ikusle bezala bertaratzeko aukera ere badago. Hala nahi izanez gero, izena ematerakoan jakinarazi beharko da.

4. Saioa hasi aurretik afariaren balioa, 30 €, emango du pertsona bakoitzak.

5. Taldeek IZEN BANA izango dute, hots, 1. taldea, 2. taldea, etab. Taldeak hala erabakiz gero, izena ere jar dakioke.

6. Txapelketa kanporaketa sistema bidez jokatuko da. Bertsolariek kanporaketa saio bakoitzean bertso-kopuru jakin bat kantatuko dute eta taldeek idatziz bertso bakoitzak aipatzen duen diagnostikoa edo hitza asmatu behar dute. Denak asmatu ezean taldea kaleratua izango da. Bertsoak ez dira inoiz bitan kantatuko.

7. Kanporaketen bidez bi talde pasako dira finalera.

8. Sailkatutako bi taldeek finala jokatuko dute. Horretarako, talde bakoitzak lau bertsori dagokien diagnostikoa edo hitza asmatu beharko du, bertsoan diagnostikoa asmatzeko nahiko datu egongo delarik. Asmatuz gero bi puntu lortuko dituzte, eta asmatu ezean beste taldeak izango du aukera errebote bidez puntu bat lortzeko. Oraingoan ere bertsoa behin bakarrik kantatuko da. Erantzuna TALDEKO BOZERAMALEAK (beti pertsona berak) emango du. Erantzun bakarra onartuko da taldeko.

9. Kanporaketatan zein finalean berdinketa emanez gero epaimahaiak erabakiko du nola hautsi berdinketa.

10. Finalera iristen diren bi taldeek saria jasoko dute.

11. Epaimahai bat izango da txapelketa gidatzeko.

2013ko BERTSO SAIO KLINIKOA - HERNANI

BOLONIARI BURUZKO HITZALDIA (2013) - BILBO

IKERKUNTZA POLITIKARI BURUZKO MAHAI INGURUA (2013) - BILBO

2014ko BERTSO SAIO KLINIKOA - HERNANI

2014ko BERTSO SAIO KLINIKOA - BILBO

2015eko OSASUN BILTZARRA - GASTEIZ

2015eko OSASUN BILTZARRA - GASTEIZ

2015eko BERTSO SAIO KLINIKOA - HERNANI

2015eko BERTSO SAIO KLINIKOA - HERNANI

2016tik 2020ra

26. Menpekotasunen aurrean... geure buruen jabe. Bilbo, 2016
27. Aniztasuna osasunean. Iruña, 2017
28. Komunikazioa - Inkomunikazioa. Arantzazu, 2018
29. Osasungintza Berria? Bere jardunetik ikasten duen osasun-sistema. Gasteiz, 2019
30. Prebentzioa auzolanean. Online, 2020

2016koa Bilbon

2017koa Iruñean

2018koa Arantzazun

2019koa Gasteizen

OSAGAIZ ALDIZKARIA

HARREMANAK: Kontseilua, UEMA, Osakidetza, Medikuen Elkargoak

LANKIDETZA HITZARMENA

Bizkaiko Medikuen Elkargoa
Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea

CONVENIO DE COLABORACIÓN

Colegio Oficial de Médicos de Bizkaia
OEE-Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea

Osakidetza

JOAN ZAIZKIGUNAK: AGOTE, AIZPURU…



Webgunea, OEEberri, Facebook, Twitter…





AGOTE SARIA

14.
AGOTE
SARIA
Idatzi eta sendatu euskara
Helburua
OEE-Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak osasun arloko testu unibertsitarioak euskaraz sortzeko eta argitaratzeko sortutako saria
Oinarriak (www.oeegunea.eus)
• Euskaraz idatziak
• Egile bat edo gehiago
• Lanak orijinalak eta argitaratu gabeak
• Osasun-arloko ikasketa unibertsitarioetako ikasgaiekin lotutakoek lehentasuna
• Lehenik lan osoaren proiektua aurkeztu eta saria lortuz gero, 12 hilabeteko epean lan osoa
Saria
• 2.400 €
• OEEk lana liburu formatuan edo e-book-en argitaratzeko ahalegina egingo du
Epea
2016ko abenduaren 31
944 00 11 33
oee@oeegunea.eus
LKS

FELIPE AIZPURU, Arabako osasun biltzarretako antolatzaileetako aparta

Arrangura handia. Osasungintzako euskalgintza apal, ahalegindu, zaildu, jipoitu eta ia heroiko honek bere zutabeetariko bat galdu dau, klasiko bat, gizon aparta, euskaltzale fina. Agur eta ohore Feliperi.

Eskerrik asko denoi parte hartzeagatik eta beste bat arte!!!

OSASUNGOA
EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEA